

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4331

EBAZPENA, 2012ko irailaren 7koa, Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordearena; honen bidez ebazten da eta ematen da argitara apirilaren 21eko 75/1998 Dekretuan ezarritako laguntzen emakida. 75/1998 Dekretuak industria-aurriak eraisteko proiektuak idazteko edo/eta burutzeko laguntzak arautzen ditu, eta 2012rako deialdia Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko apirilaren 4ko Aginduaren bidez egin zen.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2012ko apirilaren 4ko Aginduaren bidez, adierazi zen zein epe eta tokitan aurkeztu behar ziren 75/1998 Dekretuan ezarritako eskaerak; apirilaren 21eko dekretu horrek, industriako aurriak eraisteko proiektuak idatzi eta gauzatzeko laguntzak arautzen ditu (2012ko apirilaren 20ko EHAA, 78. zk.).

Deialdi horretan, erakunde hauek aurkeztu dute eskaera, laguntza jasotzeko: Atlantica de Graneles y Moliendas SA, Altuna y Uria SA, San Bartolome Muinoa SA eta Andoingo eta Zaldibiako Udalak.

Zaldibiako Udalak egindako eskaera ez da zuzendu lege ezarritako epean; beraz, udal horrek bere eskaera bertan behera utzi duela ulertu da.

Aurkeztutako gainerako eskabide guztiek betetzen dituzte laguntzak jasotzeko araudian ezarritako baldintza formalak eta materialak.

Aipatutako 75/1998 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki, eta Kalifikazio Epaimahaiak egindako proposamena ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Honekin batera doan eranskinean adierazitako industria-aurriak eraisteko egitasmoak idatzi edo/eta gauzatzeko laguntzak ematea.

2012ko ekitaldirako gordetako zenbatekoak eraispen-proiektuak idazteko gastuetarako izango dira, eta 2013ko ekitaldirako gordetakoak berriz, diruz lagunduko diren gainerako ekintzetarako.

Bigarrena.— Ebazpen hau eman eta hilabeteko epean izenpetuko dira lankidetza-hitzarmenak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren eta erakunde onuradunen artean; eta hitzarmen horietan zerrendatuko dira emandako laguntza horien inguruan aldeek izango dituzten konpromisoak, eskubideak eta betebeharrak.

Hirugarrena.— Eraispen-egitasmoak idaztea eta lanak gauzatzea bi eta lau hilabeteko epeetan egingo da, hurrenez hurren, arestian aipatutako lankidetza-hitzarmena izenpetzen denetik kontatzen hasita.

Laugarrena.— Erabaki honetan aditzera emandako arrazoiengatik, Zaldibiako Udalak egindako laguntza-eskaerak artxibatzea.

Bosgarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila eta erakunde eskatzaile bakoitzari jakinarazi diezaiotela agintzea.

2012ko irailaren 28a, ostirala

Seigarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahalko zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari hilabeteko epean, Ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 7a.

Lurralde Plangintzaren eta Uren sailburuordea,
IGNACIO ACHUCARRO ARRUABARRENA.

2012ko irailaren 28a, ostirala

ERANSKINA
EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Erakunde onuradunak	Industria aurriak	Zenbatekoa guztira (eurotan)	2012ko ekitaldia (eurotan)	2013ko ekitaldia (eurotan)
Atlántica de Graneles y Moliendas SA	Sestaoko Atlantica de Graneles y Moliendas SA-ren instalazioak	478.080,30	10.928,72	467.151,58
Altuna y Uria SA	Zumaiaiko «Conservas Ortiz» instalazio zaharrak	176.775,34	10.000	166.775,34
Andoaingo Udala	Andoaingo Papelera del Leizaran (Galgo Paper) instalazioa zaharrak	237.000	9.000	228.000
San Bartolomé Muinoa SA	Donostiako Polizia Nazionalaren Kuartela	185.900	6.000	179.900